

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

57/2019 Foru Agindua, otsailaren 28koa, hasierako onespena ematen diona Okinako udalerriko 2 poligonoko 90001 partzelako 016-232-5 landa bidean telefonia mugikorreko estaziogune bat jartzearen interes publikoa adierazteko espedienteari

Telefónica Móviles España SAK Bernedoko Udalari obra baimena eskatu dio telefonia mugikorreko estaziogune bat eraikitzeko, eta hura egiteko 20 metro luzeko sareta dorre bat jartzeko, 3,00x4,50 metroko esparru hesitu baten barrualdean, Okinako udalerriko 2 poligonoko 90001 partzelako 016-232-5 landa bidean.

Bernedoko Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean dago aurkezturiko proiektu teknikoa, telefonia mugikorreko estaziogune bat jartzeari buruzkoa (0100520 Okina COC: 201806003653), baita udal arkitektoak eginiko txostena ere, zeinean adierazten baita udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera partzela lurzoru urbanizaezinean dagoela, 7 zonan (erabilera mugatuko nekazaritza eremua) eta landa bideei eragiten diela.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluko urriaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den legeria sektorialak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehena. Hasierako onespena ematea Okinako udalerriko 2 poligonoko 90001 partzelako 016-232-5 landa bidean telefonia mugikorreko estaziogune bat jartzearen interes publikoa adierazteko espedienteari. Interes publikoaren adierazpena Telefónica Móviles España SA enpresak sustatu eta Bernedoko Udalak izapidetu du.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeit egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu

ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 28a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO